

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5

AGINDUA, 2016ko abenduaren 7koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikulua ematen dizkidan ahal-menez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako txostenarekin bat, eta horretarako aurrekontu-kreditua badagoela aintzat hartuta, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Silvia Colmenero Salgado andrea aholkulari izendatzea Komunikazioetako arloan, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean (kodea: 5223; 9. dotazioa; zuzendari-maila).

Bigarrena.– Aholkulari-lanpostu baten berezko atazak bete beharko ditu, bai eta atxikita dagoen arloko ataza espezifikoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako lege eskatutako baldintzak betetzen baditu, honako artikulua hauetan bildutako aurreikuspen guztiak edo haietako zenbait aplikatu dakizkion: Goi-kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legearen 3.1, 5.1 edo 5.2 artikulua.

Laugarrena.– Izendapen honek 2016ko abenduaren 7tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Halaber, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana berez azkenduko da, izendapena egin duen organoko titularrak kargua uzten duenean. Dena den, izendapena edozein momentutan indargabetu ahal izango da.

Bosgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 7a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JOSÉ ALFREDO RETORTILLO PANIAGUA.